

Akiles eta dordoka



Akiles eta dordoka

Jatorrizko izenburua: Aquiles y la tortuga

Egilea: Seve Calleja

Itzultzailea: Juan Luis Zabala

Argitaratze urtea: 2010

Argitaletxea: Alberdania

MIKEL GARMENDIA

Egileak berak emango digu oraingoan, guri lana erraztuz, Alberdania argitaletxearen eskutik eta Juan Luis Zabalaren euskarazko bertsioan heldu berri zaigun eleberri labur hau gazte literaturan kokatu behar ote dugun ala ez argitzeko erantzun biribila: “Ez dago gazte literaturik, irakurtzeko era gazte bat baizik”. Ez da, ez, nolana hiko baieztapena, eta bere horretan utziko dugu.

Zinez interesgarria iruditzen zait, berez, klasikoen mundura hurbiltzeko ahalegina, eta are interesgarriago, Seve Callejak, erreferentzia historikoak desitxuratu gabe, horiek baliatuz egiten digun planteamendu berritzailea. Akilesen mitoa baliatzen du egileak porrotaren ondoren bigarren aukera bat izatearen garrantzia iradokitzeko eta laguntzaren eta adiskidetasunaren beharra eta garrantzia nabarmentzeko.

Hirugarren pertsonan kontatua eta elkarrizketa ugariz hornitua, arreta etengabe bizirik edukiaraziko dizun kontakizun horietakoa duzu *Akiles eta dordoka*. Narratze-teknikari dagokionez, eta zehazkiago iragana orainera ekartzeko erabili ohi den orainaldi narratiboari, lehena orainaldira ekartzeko aditzaren aspektu ez-burutua (egin du, eman dio...) erabili du, eta ondo funtzionatzen duela esango nuke. Dakigunez, bada gauza bera egiteko beste modu bat, aditz aspektu ez burutua (egiten du, ematen dio...), eta horrek ere ondo funtzionatzen du Eskarne Mujika itzultzaileak, esate baterako, *Koaderno Handia* eleberri bikain itzulian erakutsi zigunez.

Aparteko aipamena merezi du –eta horixe du, ene ustez, eleberri honen alderdi interesgarrienetako bat– eleberriaren amaierak. Ez dugu, noski, hemen agertuko nola amaitzen den eleberria, bai ordea esango ezen heroiei ez, baina beste norbaiti emango diela protagonismoa.

Eleberri labur bezain interesgarria, sakona eta aldi berean arin irakurtzeko modukoa eta euskarazko bertsio ondo landua, istorioa atseginez irakurtzeko parada ematen diguna.